PATRONATO DE CULTURA Zizur Mayor
KULTUR PATRONATUA Zizur Nagusia

Erreniega Parkea z.g. - 31180 Zizur Nagusia
Parque Erreniega s/n - 31180 Zizur Mayor
kultura@zizurnagusia.eus
948 182 500

# ZIZUR NAGUSIKO UDALEKO KULTUR PATRONATUAREN ETA ZIZURKO TRIKITILARIAK TALDEAREN ARTEKO HITZARMENA.

## PARTE HARTZEN DUTE

Zizur Nagusiko Udaleko Kultur Patronatuaren partetik, bertan burua den Pilar Toral Urquizu andreak.

Zizurko Trikitilariak taldearen partetik (IFZ G31963747), Jesús María Janices Pérezek, NAN ********* eta helbidea ********* dituenak.

Aipaturiko ordezkariok, hitzarmen hau taxutzeko asmotan bildurik, ondoko hauek hitzartu dituzte:

**LEHENENGOA:**
Honako hitzarmen honen xedea hau da: Zizur Nagusiko Udaleko Kultur Patronatuaren eta Zizurko Trikitilariak taldearen arteko harremanak zein Patronatuaren eskutik 2019an talde honek burutu beharreko emanaldiak (herriko festetan zein kultur egitarauaren barnean) arautzea.

**BIGARRENA:**
Zizurko Trikitilariak taldearen jarduna altruista eta desinteresatua da. Halaz guztiz, Udaleko Kultur Patronatuak taldeari diru-laguntza sinbolikoa ematea planteatuko du, Patronatuaren aurrekontuaren eta hitzartutako emanaldien arabera urte bakoitzerako xedatuko dena.

**HIRUGARRENA:**
Urte honetarako ekitaldien egutegi hau hitzartzen da:
- Urtarrilak 5: Errege Magoen Kabalgata.
- Inauteriak (bi emanaldi).
- Ekainak 23: San Joan gaua.
- Herriko festak (2 emanaldi).
- Abenduak 24: Olentzero.

**LAUGARRENA:**
Aurreko atalean aipatzen diren emanaldietako bakoitzeko, 195,70 € ordain-duko dio Udaleko Kultur Patronatuak Zizurko Trikitilariak taldeari, eta diru-laguntza honen bitartez borondatezko jardunak sortaraziriko gastuak ordaindu ahal izango ditu taldeak.

# CONVENIO QUE SE SUSCRIBE ENTRE EL PATRONATO MUNICIPAL DE CULTURA DE ZIZUR MAYOR Y EL GRUPO ZIZURKO TRIKITILARIAK.

## INTERVIENEN

Por parte del Patronato Municipal de Cultura de Zizur Mayor, Dª. Pilar Toral Urquizu, Presidenta del mismo.

Por parte de Zizurko Trikitilariak, NIF G31963747, Jesús María Janices Pérez como representante, con DNI ********* y domicilio en *********.

Las representaciones indicadas, reunidas para establecer el presente convenio llegan al acuerdo siguiente, mediante las estipulaciones que a continuación se citan:

**PRIMERA:**
Es objeto del presente convenio la regulación de las relaciones entre el Patronato Municipal de Cultura de Zizur Mayor y el grupo Zizurko Trikitilariak, así como las actuaciones del grupo durante el año 2019 para el Patronato (tanto en Fiestas Patronales como en actos propios del Programa Cultural).

**SEGUNDA:**
La actividad del grupo Zizurko Trikitilariak es altruista y desinteresada. No obstante el Patronato Municipal de Cultura planteará una gratificación simbólica al grupo, que se establecerá para cada año, en base a la disponibilidad presupuestaria del Patronato y a las actuaciones que se acuerden.

**TERCERA:**
Se acuerda el siguiente calendario de actuaciones a lo largo del presente año:
- 5 enero: Cabalgata RR.MM.
- Carnavales (2 actuaciones).
- Día 23 de junio: Noche de San Juan.
- Fiestas Patronales (2 actuaciones).
- 24 de diciembre: Olentzero.

**CUARTA:**
Por la realización de cada una de las actuaciones que se indican en el apartado anterior, el Patronato Municipal de Cultura abonará la cantidad de 195,70 € al grupo Zizurko Trikitilariak, como subvención para que los componentes del grupo puedan sufragar gastos y suplidos derivados de su actividad voluntaria.

**BOSGARRENA:**

Patronatuak honela ordainduko du:
. %70 hitzarmena sinatutakoan, 959,00 €.
. Gainerako %30a, 1.370,00 euroko kopurura iristeraino, urtearen azken hiruhilekoan, egindako emanaldien memoria aurkeztu-takoan.

Diru-laguntza hau Zizur Nagusiko Kultur Patronatuak 2019. urterako indarrean duen aurrekontuko 33403 4820007 partidaren kontura emango dira.

**SEIGARRENA:**

2020ko martxoaren 1a baino lehen MEMORIA aurkeztuko da Kultura Zerbitzuan. Memoriak batzar nagusiaren aktaren kopia, taldeko kideen zerrendarekin batera, 2019ko ekitaldiaren kontuen itxiera eta bere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoekin betetze aldera egunean dagoela egiaztapena jasoko ditu. Aipatu Memoriaren aurkezpena ezinbesteko baldintza izanen da 2020ko diru-laguntzaren lehen zatia kobratzeko, balego.

**ZAZPIGARRENA:**

Hirugarren atalean zehazturiko datez gain beste noizbait Zizurko Trikitilariak taldearen beharra izanez gero, emanaldi bakoitzeko 195,70 € ordainduko dio Patronatuak taldeari.

**ZORTZIGARRENA:**

Zizurko Trikitilariak taldeak, hitzarturiko emanaldiak behar ditu burutu, horietako baten bat burutzerik ez balu, antzeko ezaugarriak dituen beste talderen bat kontratatzeko beharrezko kopurua deskontatuko zaio.

**BEDERATZIGARRENA:**

Zizur Nagusiko Udalak Lehengo Kontzejuko lehen solairuan duen lokal bat uzten du: entseiatzeko eta Taldearen tresnak eta gainerakoak zaintzeko eta gordetzeko. Taldea lolaka zaintzeaz eta erabilera egokiaz arduratuko da.

**HAMARGARRENA:**

Erakundea ez da izango hartzaileak lagatako aretoan utziriko gauza materialen erantzule. Erakundeak ez du, inolaz ere, gordetzaile ardura bere gain hartzen.

**HAMAIKAGARRENA:**

Emanaldian sorturiko gastu guztiak: garraioak, musikariak, otorduak, e.a. Taldearen esku geratuko dira.

**QUINTA:**

El Patronato abonará:
. El 70% a la firma del presente convenio, 959,00 €.
. El 30% restante, hasta 1.370,00 €, en el último trimestre del año, una vez presentada la memoria de las actuaciones realizadas.

Esta subvención se abonará con cargo a la partida 33403 4820007 de los presupuestos del Patronato Municipal de Cultura de Zizur Mayor del año 2019.

**SEXTA:**

Antes del 1 de marzo de 2020, se entregará en el Servicio de Cultura una MEMORIA en la que se incluya una copia del acta de la asamblea general con la relación de miembros del grupo, el cierre de cuentas del ejercicio 2019 y la acreditación de que se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social. La presentación de dicha Memoria será condición indispensable para cobrar la primera parte de la subvención de 2020, si la hubiera.

**SÉPTIMA:**

En el caso de que el Patronato requiriera al grupo Zizurko Trikitilariak en más fechas de las previstas en el punto tercero, aquél abonará a éste, a razón de 195,70 € por cada actuación.

**OCTAVA:**

El grupo Zizurko Trikitilariak deberá cumplir las actuaciones concertadas. Si una vez habiéndose concretado la actuación, se diera la circunstancia de no poder asistir, se le descontará la cantidad necesaria para la contratación de otro grupo de características similares.

**NOVENA:**

El Ayuntamiento de Zizur Mayor cede el uso de un local de su propiedad, sito en la primera planta del Antiguo Concejo, como sala de ensayos para guarda y custodia de los útiles propios del Grupo, quien velará por el cuidado y buen uso del mismo.

**DÉCIMA:**

La entidad no se hace responsable de los efectos materiales que el ocupante deposite en el local cedido. La entidad no asume, en ningún caso, la condición de depositario.

**UNDÉCIMA:**

Todos los gastos derivados de la actuación: transporte, músicos, manutención, etc. serán por cuenta del Grupo.

PATRONATO DE CULTURA
Zizur Mayor

KULTUR PATRONATUA
Zizur Nagusia

**HAMABIGARRENA:**

Emanaldi bakoitzean, zein ibilbidetan eta zenbat denboraz arituko diren Patronatuko eta taldeko arduradunen artean behar dituzte zehaztu, azken hauek aldatzea izanen dutela egoerak hala eskatuta.

**HAMAHIRUGARRENA:**

2019ko urtarrilaren lehenetik atzeraeragineko ondorioa izanen duen honako hitzarmen hau urtebetez egonen da indarrean eta epea bukatu baino hamabost egun lehenago berrikusi ahal izanen da eta beste urtebetez luzatu, interesatuak diren aldeak hala adosten badute.

Geroko hitzarmena hurrengo urterako taxutzean, Udaleko Kultur Patronatuaren aurrekontua kontuan hartuko da.

**HAMALAUGARRENA:**

Hitzarmen honen izaera administratiboa da. Beraz hitzarmen honen interpretazioa, aldaketa, ondorioak nahiz ebazpenaren ondorioz sortzen diren auziak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ardurapekoak izango dira.

Hitzarmen honetan berariaz zehaztu ez diren kasuetarako, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra hartuko da kontuan, baita uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua ere, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Araubidea onartzen duena.

Eta behar den tokian agerian gera dadin, adostutakoaren adierazgarri, bikoiztua eta ondorio bakarrerako, ondoko hauek sinatzen dute, Zizur Nagusian, 2019ko martxoaren 27an.

**DUODÉCIMA:**

Los recorridos y tiempos de actuación deberán ser determinados entre los responsables del Patronato y del grupo, pudiendo éstos últimos alterarlos o modificarlos en función de circunstancias que así lo aconsejen en cada actuación.

**DECIMOTERCERA:**

Este convenio tendrá vigencia de un año, con efecto retroactivo desde el 1 de enero de 2019, y se revisará quince días antes de expirar el plazo, pudiéndose prorrogar por otro año, siempre que las dos partes interesadas estuvieran de acuerdo.

El futuro convenio se ajustará en su revisión para el próximo año a las disponibilidades presupuestarias del Patronato Municipal de Cultura.

**DECIMOCUARTA:**

El presente convenio tiene naturaleza administrativa. Por lo tanto, las interpretaciones, los cambios y los efectos, así como los litigios que puedan suscitarse, se someterán a los Tribunales del orden jurisdiccional contencioso administrativo.

En lo no previsto en el presente convenio en cuanto al régimen subvencional, será de aplicación la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, así como el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley General de Subvenciones.

Y para que así conste, y en prueba de conformidad, firman el presente convenio, por duplicado y a un solo efecto, en Zizur Mayor a 27 de marzo de 2019.

Sin. / Fdo.: Pilar Toral Urquizu
Udaleko Kultur Patronatuburua
Presidenta Patronato Municipal de Cultura

Sin. / Fdo.: Jesús María Janices Pérez
Zizurko Trikitilariak